

**MATXINADA BARRUALDEAN?
DONOSTIARI ETA 1766KO MATXINADARI BURUZKO
IKUSPEGI BERRIAK**

**¿UNA REBELIÓN DE TIERRA ADENTRO?
NUEVAS PERSPECTIVAS SOBRE SAN SEBASTIÁN
Y LA MACHINADA DE 1766**

Xabier ALBERDI LONBIDE

Dr. en Historia Marítima

Carlos RILOVA JERICÓ

Dr. Facultad de CC. Sociales de
la Comunicación (UPV/EHU)

Laburpena:

Lan honek agerian jartzen dizkigu, inoiz argitara gabeko dokumentuen bitartez, 1766. urteko Matxinadatik gutxien ezagutzen diren xehetasunak, esate baterako, Gipuzkoako kostaldean finkatuta zegoen ekonomia kapitalista indartsuaren aurka izan zuen eragina.

Giltz-hitzak: Matxinada. 1766. Gipuzkoako kapitalismoa. Manuel de Agote.

Resumen:

Este trabajo pone de manifiesto a través de documentos inéditos, aspectos poco conocidos de la Machinada del año 1766 como, por ejemplo, su incidencia en el sector litoral de Gipuzkoa en contra de la dinámica económica capitalista asentada en él.

Palabras clave: Machinada. 1766. Capitalismo guipuzcoano. Manuel de Agote.

Abstract:

This work, through unpublished documents, brings to light little-known aspects of the Machinada, or revolt, of 1766 such as, for example, its impact on the coastal sector of Gipuzkoa in opposition to the capitalist economic dynamics established there.

Keywords: Machinada. 1766. Capitalism of Gipuzkoa. Manuel de Agote.

1. Sarrera

Hainbatetan, inertzia edo interpretazio edo zehaztasun akats bat oinarri duten gertaera historikoak egiazkotzat jo ohi ditugu.

Hala, esaterako, Abraham Lincoln presidentea hil zuen John Wilkes Boothen heriotzari buruz onartutako eta ezarritako ohiko bertsioak dio mag-nizida ezaguna polizia federalak atzeman zuela Washington D.C. inguruko landetxe batean, eta atxilotetari aurre egin zionez, tirokatuta hil zutela, 1865ean bukatutako Sezesio Gerra delakoan garaile ateratako aldeko agin-tariek tirokatuta, hain zuzen.

Baina, onartutako bertsio horrekin batera –Lincolnen hiltzailearen heriotzari buruzko egia ofizialtzat har dezakeguna–, beste bertsio bat ere badago, edo egon zen. Bertsio horren arabera, John Wilkes Boothe ihes egi-tea lortu zuen eta European hartu zuen aterpe. European sekula ez zuten topatu, eta gure garaiko hilketa politiko garrantzitsuenetako bat zigorrik gabe geratu zen. Oinarri gutxiko hipotesia da, ez oso hedatua, baina, baliteke Lincolnen hiltzailearen heriotzari buruzko egia ofizial izendatu dugunak piztutako aztarna arrazionaletan oinarrituta egotea. Esaterako, John Wilkes Boothen gorpua ziurtasunez identifikatu beharra zenbait marka pertsonalen bitartez, antza marka horiek ez baitzeuden oso argi Estatu Batu ezarri berrien iparral-dearen eta hegoaldearen arteko erdibidean zegoen landetxe hartan egin zen tiroketaren ondoren jasotako gorpuan. Bertsio estraofiziala eta, bistan denez, eztabaidagarria, idazlan honen egileetako batek beste artikulua batean aztertu zuen bezala¹.

Dena dela, Ameriketako Estatu Batuetako Sezesio Gerraren bukaerari buruzko bertsio ofizialetik aldentzen den bertsio horren oinarriak eta bide ilunak argitzen hasi gabe, beste gertaera bati buruzko xehetasunak eman nahi ditugu. Gertaera horrek ez du, inondik inora, Abraham Lincolnen hilketak historia unibertsalean izan zuen garrantzia, baina, hala ere, zalantzarako eta galderetarako aukera ematen du, haren izaera, benetako mugak eta eragina ez baitaude argi.

1766ko Matxinadari buruz ari gara, eta hark Gipuzkoan izandako garapenaz.

Hasteko, gertaerari buruzko literatura historiko ugariak dio, batez ere, Gipuzkoa barnealdean gertatu zela, eta, pixkanaka, ustea zabaldu zen Gipuzkoako kostaldeak –Donostia ere bai, jakina– ez zuela zerikusirik izan errebolta harekin.

1. Ikus Carlos RILOVA JERICÓ: «‘Mister Lincoln’, the assassin and the deputy. The basques and the American Civil War (1861-1865)». *Euskonews & media*, 325. zk., 2005, (*online* edizioa, elebitan, originala ingelesez, gaztelaniara itzulua).

1. Introducción

Con cierta frecuencia se suelen dar por bien asentados hechos históricos que sólo se basan en inercias, o en algún error de interpretación o de detalle.

Así, por ejemplo, la versión habitualmente aceptada, y establecida, de la muerte de John Wilkes Booth, el asesino del presidente Abraham Lincoln, señala que este conocido magnicida fue alcanzado por efectivos federales en una granja no muy lejos de Washington D. C. y, resistiéndose a su detención, acabó allí sus días, tiroteado por esas autoridades del bando que poco tiempo atrás habían salido vencedoras en la llamada Guerra de Secesión que acaba en 1865.

Sin embargo, junto a esa versión habitualmente aceptada –la que podríamos calificar como “verdad oficial sobre la muerte del asesino de Lincoln”–, circula, o en su día circuló, la especie de que el verdadero John Wilkes Booth logró huir de sus perseguidores y se refugió en Europa, donde nunca más se dio con él, quedando así impune uno de los más importantes asesinatos políticos de nuestra época. Una hipótesis poco sustanciada, también poco prodigada, pero, quizás, basada en indicios racionales a los que pudieron dar pábulo algunos aspectos de la que hemos llamado “verdad oficial sobre la muerte del asesino de Lincoln”. Caso, por ejemplo, de la necesidad de identificar fehacientemente los restos de John Wilkes Booth a través de determinadas señas personales que no parecían estar muy claras en el cadáver que se recogió, tras el tiroteo, en aquella granja a medio camino entre el Norte y el Sur de los nuevamente restaurados Estados Unidos. Una versión extraoficial y, como vemos controvertida, de esos hechos de la que, al menos, uno de los dos autores de este trabajo se hizo eco en su día, cuando trató del tema en otro artículo¹.

Sin entrar ahora a esclarecer los fundamentos y oscuros meandros de esta tentadora versión divergente sobre el final de la Guerra de Secesión de los Estados Unidos, sí quisiéramos tratar en detalle sobre un hecho distinto, de mucho menos calado para la Historia Universal que el asesinato de Abraham Lincoln, pero que, aún así, también ofrece todavía hoy campo para dudas y preguntas sobre su carácter y sus verdaderos límites y el alcance del mismo.

Nos referimos a la Machinada del año 1766 y su desarrollo en el territorio guipuzcoano.

1. Véase Carlos RILOVA JERICÓ: “‘Mister Lincoln’, the assassin and the deputy. The basques and the American Civil War (1861-1865)”. *Euskonews & media*, nº 325, 2005, (edición *online*, bilingüe, original en inglés con traducción al castellano).

Doktrina hori, nolabait esatearren, Rafael Castellano idazleak –*Gabai* komiki sortaren egilea, Juan Luis Landarekin eta Juan Carlos Nazabalekin batera– irudien bidez azaldu zuen eta, dakizuenez, irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du. Irudi horietan argi ikus ditzakegu Peñafloidako kondea eta beste «Azkoitiko jauntxo» ezagun batzuk, Narros markesa esaterako, zibil eta militar batzuek lagunduta, Donostian dabilzan matxinoak mendean hartzen; Donostian daudela adierazteko, jakina, Kontxako badia ezaguna marraztuta dago binetaren atzealdean².

Gidoigileak eta marrazkilariek dokumentatutako bertsiok hartu dituzte oinarri; esaterako, Alfonso Otazu y Llanak *La burguesía revolucionaria vasca* liburuan azaldukoak. Izan ere, errebolta horren aurka armen bidez eragindako errepresioari buruzko zehaztasun gehien eman duena da. Eragozpenik ez arlo horretan, baina egia al da 1766ko matxinadaren oihartzunek ez zituztela Gipuzkoako kostaldeko herrietako harresiak gainditu? Ildefonso Gurruchagak Azpeitiko matxinadari buruz eginiko azterketa hartu behar al dugu errebolta hari buruzko ikerketen hasieratzat eta bukaeratzat? Azken batean, Matxinadari buruzko funtsezko ikerketa batean, Pierre Vilar adituak zioen errebolta «nekazal kutsukoa» izan zela. Lan honen beste egile batzuek egin moduan, errebolta, batez ere, Aia bezalako nekazal herrietan gertatu zela adieraztera mugatu behar dugu gure eginahala, edo erreboltaren eremu geografikoa garrantzirik gabeko gaitzat hartu behar dugu?³

Horrelako galderei erantzuteko, Tolosako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artxibategi Orokorrean gordetako Korrejimendu Fondo erabilgarriko argitaratu gabeko dokumentazioa erabili dugu. Hari esker ohartu gara Matxinadak «nekazal kutsua» baino zerbait gehiago izan zuela, eta haren oihartzuna, eta zerbait gehiago, gure probintziako kostaldeko gotorleku garrantzitsuenetako batzuetara iritsi zela, baita Donostiakora ere.

2. Ikus Rafael CASTELLANO-Juan Luis LANDA-Juan Carlos NAZABAL: *Gabai. Gure herriaren historia*. Lur argitaletxea. Bilbo, 1989. 6. liburukia, 53 or.

3. Ikus Alfonso OTAZU Y LLANA: *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII*. Txertoa, Donostia, 1982, Ildefonso GURRUCHAGA: «La machinada del año 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo». *Yakintza*, 5. zenbakia, 1933. Agorr-Urrila, 373-392 or., eta Pierre VILAR: *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*. Kritika. Bartzelona, 1982, 131-132 or.

Aiako Matxinada Xabier Alberdi Lonbidek 1998an Aian emandako hitzaldi baten gaia izan zen. Gertaeren eremu geografikoa kontuan hartu gabe Gipuzkoako Matxinadari buruz egindako deskripziorako, ikus, esaterako, Carlos RILOVA JERICÓ: *Este feroz y desmandado pueblo. Reacciones frente a la Libertad de Comercio durante la Machinada de 1766 y la revolución norteamericana. Apuntes para una Historia comparativa*, Virginia TAMAYO SALA-VERRIA (koord.): *II SYMPOSIUM: Libertad de Comercio y Aduanas en los territorios de Vasconia*. Instituto de Derecho Histórico de Vasconia, 2. zk., 2003, 413-431 or.

En principio, la relativamente abundante literatura histórica sobre ella, da a entender, de forma mayoritaria, que ésta tuvo como escenario principal el interior de esa provincia, quedando así, poco a poco, fijada la impresión de que el litoral de ese territorio –el cual, naturalmente, incluye a San Sebastián– queda completamente al margen de esa convulsión.

Una doctrina, por así llamarla, que el escritor Rafael Castellano, autor, junto con los dibujantes Juan Luis Landa y Juan Carlos Nazabal, de la conocida saga en viñetas de Gabai, no dudó en fijar en imágenes que, como bien sabemos, valen más que mil palabras. Unas en las que vemos, claramente, cómo el Conde de Peñaflores y otros destacados “caballeritos de Azcoitia” como el marqués de Narros, apoyados por diversos elementos civiles y militares, ponen a raya a los machinos que marchan sobre San Sebastián, obviamente representada en esa obra por el perfil de su bien conocida bahía como fondo de esa viñeta².

Naturalmente, guionista y dibujantes se hacen eco de versiones ya documentadas en estudios sobre ese acontecimiento como el de Alfonso de Otazu y Llana titulado “La burguesía revolucionaria vasca”, que es el que más detalles da sobre la represión a mano armada de ese motín. Nada que objetar a ese respecto, pero, ¿realmente los ecos de la Machinada de 1766 no lograron traspasar los muros de las poblaciones litorales guipuzcoanas? ¿Tenemos que considerar el estudio ya clásico de Ildefonso Gurruchaga sobre la Machinada en Azpeitia, como el principio y fin de nuestras averiguaciones sobre esa rebelión? Al fin y al cabo una voz tan autorizada como la de Pierre Vilar no dudaba en afirmar en un estudio esencial sobre la Machinada que ésta era de “carácter rural”. ¿Debemos, pues, seguir perseverando, como ya lo han hecho los autores de este mismo trabajo, en limitar nuestros esfuerzos a describir esa rebelión como un asunto desarrollado fundamentalmente en poblaciones de tierra adentro como Aia, o bien a considerar el marco geográfico de la misma como un asunto irrelevante?³.

2. Véase Rafael CASTELLANO-Juan Luis LANDA-Juan Carlos NAZABAL: *Gabai. Historia de nuestro Pueblo*. Lur argitaletxea. Bilbo, 1989. Volumen 6, p. 53.

3. Véase Alfonso de OTAZU Y LLANA: *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII*. Txertoa. San Sebastián, 1982, Ildefonso GURRUCHAGA: “La machinada del año 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo”. *Yakintza*, 5º go zenbakia, 1933’ko. Agorr-Urrila, pp. 373-392 y Pierre VILAR: *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*. Crítica. Barcelona, 1982, pp. 131-132.

La Machinada en Aia fue el tema de una conferencia pronunciada en esa población por Xabier Alberdi Lonbide en el año 1998. Sobre la descripción de la Machinada guipuzcoana sin atender al marco geográfico en el que se dan los acontecimientos, véase, por ejemplo, Carlos RILOVA JERICÓ: “*Este feroz y desmandado pueblo*”. Reacciones frente a la Libertad de Comercio durante la Machinada de 1766 y la revolución norteamericana. Apuntes para una Historia comparativa”, en Virginia TAMAYO SALAVERRIA (coord.): *II SYMPOSIUM: Libertad de Comercio y Aduanas en los territorios de Vasconia*. Instituto de Derecho Histórico de Vasconia, nº 2, 2003, pp. 413-431.

2. Egun txarra Manuel Agote zaharrarentzat. Matxinada Getariara iritsi da

Orain aipatuko dugun agiriaren edukia nahiko berria da. Hein batean, Matxinada gisa ezagutzen dugun gertaera historikoa idazteko –berriro idazteko– ezezaguntzat har dezakegu. Getaria hiribilduan maaltxatuta –hala dio agiriak– sartu ziren matxinoen zerrenda bat da. Oso idatzi laburra da, baina horrek ez du haren interesa gutxitzen⁴.

Ez, behintzat, Gipuzkoako kostaldean errebolta hura nolakoa izan zen jakin nahi badugu, 1789ko Frantziako Iraultza aurreko munduaren eta ondorengoaren artean dagoena. Ez dezagun ahaztu, gutxiago ala gehiago gustatu, guztiok garela, Unibertsitateko ereserkiak dioen moduan, gertakari haren seme edo alaba.

Hala da. Gipuzkoako korrejidoreak matxino batzuen gehiegikerien –gehiegikeriak haren ikuspegitik, behintzat– berri izan zezan egindako zerrenda labur horrek Gipuzkoa asaldatu zuen gertaera hari buruz askoz gehiago jakitea ahalbidetu digu. Aintzat hartu behar dugu garai hartako Gipuzkoa ilustrazioaren abangoardian sartuta zegoela bete betean, eta hortaz, ilustrazio horrek hamarkada gutxi geroago ekarriko zuen iraultzan.

Lehenik eta behin, agiri horrek gertaeraren protagonistei buruzko informazioa biltzen du. Batez ere, erreakzio hura piztu zuten berrikuntza ekonomikoen aurrean matxinatutakoei buruzkoa, baita haien arerioei buruzkoa ere. Gipuzkoako biztanleen sektore hori matxinoena bezain interesgarria da, baina, proportzionalki, askoz gutxiago ikertu izan da haiei buruz orain arte.

Lehenengo, Getariara era zaratatsuan iritsitako matxinoak ikuskatuko ditugu eta, ondoren, orduan haien biktimak nortzuk izan ziren zehaztuko dugu. Horiek, eta batez ere horietako batek, XVIII. mende emankorrean eta aktiboan Gipuzkoa itsas indar kolonial bihurtzen berebiziko garrantzia izan zuen –Borboien monarkia inperialaren babes atseginarean pean, jakina–. Baina matxinoak ez zeuden hori jasateko prest, eta errotik apurtu nahi zuten.

Baina ez dezagun aurrerago jo, eta azter ditzagun, banan-banan, 1766ko udaberrian Getarian sartu ziren gizonak, gauzak haien ustez egokien zeuden moduan uzteko sartu ere. Halaber, are garrantzitsuagoa da horrela jarduteko izan zituzten arrazoiak aztertzea, eta horixe egingo dugu.

4. Kontsultatu Archivo General de Gipuzkoa-Gipuzkoako Artxibo Orokorra (aurretzean, AGG-GAO) 1766. urtean, 11. kuxa, 2. espedientea.

Para responder a preguntas como esas, echaremos mano de documentación inédita del siempre útil Fondo del Corregimiento, conservado en el Archivo General de la Diputación guipuzcoana con sede en Tolosa. Gracias a ella descubriremos que la Machinada tuvo algo más que “carácter rural” y que sus ecos, y algo más, traspasaron incluso las sólidas fortificaciones de algunas importantes poblaciones del litoral de nuestra provincia entre las que, naturalmente, estaba San Sebastián.

2. Un mal día para Manuel de Agote el viejo. La Machinada llega a Getaria

El documento del que hablaremos en este punto es relativamente novedoso. En buena medida puede considerarse inédito de cara a la escritura –y re-escritura– del episodio histórico que conocemos como Machinada. Se trata de una nómina de los machinos que entraron amotinados –como dice el documento– en la villa de Getaria. Es un escrito, en cualquier caso, muy breve. Pero no por eso menos interesante⁴.

No al menos si lo que nos interesa es saber cómo se desarrolló en el litoral guipuzcoano aquella rebelión a medio camino entre el mundo anterior a la revolución francesa de 1789 y el posterior a ese acontecimiento del que, nos guste más o menos, somos hijos todos los que hoy, como diría el himno de la Universidad, en el Mundo somos.

Así es. Esa pequeña lista elaborada para que el Corregidor de Gipuzkoa se entere de los desmanes –desmanes al menos desde su perspectiva– cometidos por algunos de los machinos, nos permite saber mucho sobre cómo se desarrolló ese acontecimiento que convulsiona a una Gipuzkoa situada en la vanguardia de la Ilustración y, por tanto, en la de la revolución que ésta, a su pesar o no, engendrará pocas décadas después.

Ese documento revela, en primer lugar, información sobre los protagonistas de ese acontecimiento. Principalmente sobre los rebeldes a las novedades económicas que han desencadenado esa reacción y asimismo sobre sus enemigos, un sector de la población guipuzcoana tan interesante como el de los propios rebeldes, mucho más estudiados proporcionalmente hasta ahora.

Empezaremos por pasar revista a los amotinados que hacen un estridente acto de presencia en Getaria y después nos encargaremos de considerar quiénes fueron sus víctimas en esa ocasión. Comprobaremos que éstas, y especialmente una de ellas, tuvieron un destacado papel en la consolidación de ese territorio como una potencia colonial marítima –por supuesto bajo la

4. Consúltese Archivo General de Gipuzkoa-Gipuzkoako Artxibo Orokorra (desde aquí AGG-GAO) Año 1766, caja 11, expediente 2.

Antonioren kasua aztertu dugu lehenik. Antonioren abizena ez dakigu, baina bai Arroan bizi zela, agiriak Arracola izendatutako etxean. Agiriak ez digu gizon hari buruz askorik esaten, izan ere, abizenik ere ez zuen, ez behintzat gertaerak berregiteko erabilitako lekukoek gogoratzeko moduko abizenik. Dena dela, paperezko orri horietan hari buruz jarritakoak nahiko argigarriak dira; behintzat, garai hartako Antonioren sentimenduen berri eta ezagutzen zuen munduan bere ustez egin beharreko aldaketen berri izateko.

Dirudienez, XVIII. mendeko janzkera finak ez zituen gogoko. Agiriak dio, gainerako matxinoekin Getarian sartu bezain laster, alkateari eta udal gobernuko gainerako kideei agindu ziela XVIII. mendeko modarekin bat egin nahi zuten gizonezko guztientzat ezinbestekoa zen osagarri bat kentzeko. Hau da, ileordea kenarazi zien, zeina horretarako espresuki soil-dutako buru gainean eraman ohi zuten. Lerro hauek irakurri eta William Hogarthen koadro jakin batzuk ikusi dituztenek imajina dezakete, gutxi gorabehera, agiriaren arabera Antonio izeneko baserritar hark planteatutako gatazka zer nolakoa izan zen⁵.

Dena dela, haren programa politikoa edo dena delakoa ukitu estetiko haiek baino askoz ere urrutirago zioan. Europako klase ertainek eta goi mailakoek estatusaren sinbolo gisa erakusten zuten luxua suntsitu nahi zuen, Alfonso Otazuk bere garaian aipaturiko «euskaldunen arteko berdintasuna»ren teoria egiazkoago egiteko⁶.

Hala da, Arroako Arracola etxeko Antoniok XVIII. mendeko Gipuzkoako kapitalismo indartsuaren errealitate ekonomikoak aldatu nahi zituen, ez hark ez haren kideek ez baitzituzten ikusten ustez kapitalismoak zituen onurak. Batez ere, garai hartako –baita gaur egungo ere– premia-premiazko produktuak merkeago lortu nahi zituzten; esaterako, ogia.

Ildo horretan, aztertzen ari garen agiriak dio Antoniok eta beste batzuek agindu ziotela Juan Baptista Ezenarriori ontzian zeraman gari guztia saltzeko, Getariatik ezer atera gabe. Garai hartan, Ezenarro, agiriak Hiribilduko Sardinazaleen Konpainia izendatzen duen ontziko kapitaina zen. Agindu horren bitartez Antoniok ogia merkatu librearen diru-goseari lotutako beste gai bat izan ez zedin lortu nahi izan zuen. Halaber, hiribil-

5. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 2. orriaren aurrealdea.

6. Alfonso OTAZU Y LLANA: *El «igualitarismo» vasco: mito y realidad*. Txertoa, Donostia, 1986.

agradable capa protectora de la poderosa monarquía imperial borbónica— a lo largo de ese prospero y activo siglo XVIII. Algo que los machinos, por buenas razones —buenas para ellos, claro está— no están dispuestos a soportar y, por supuesto, desean destruir de raíz.

Pero no adelantaremos más acontecimientos y pasaremos ya a examinar, uno por uno, a los hombres que, a mano y voz airada, entraron en Getaria en la primavera de 1766 para devolver las cosas al estado que ellos creían más adecuado y, lo que es más importante, a sus motivos para actuar así.

Empezaremos por el caso de Antonio, cuyo apellido se ignora, aunque se sabía que era inquilino en Arrona, en la casa que este documento llama “Arroacola”. No es mucho más lo que el documento nos dice sobre este hombre que, por no tener, no tenía siquiera un apellido que se recordase por los testigos que se recaban para reconstruir aquellos hechos. Sin embargo, quizás, lo poco que se dice sobre él en esas pocas hojas de papel, resulta bastante revelador. Al menos sobre cómo se sentía él en esas fechas y que era lo que creía que debía cambiar en el Mundo que él conocía

En efecto, parece ser que las delicadas maneras en el vestir, tan propias del siglo XVIII, no eran de su agrado. Así, el documento dice que lo primero que hizo al entrar en Getaria en compañía de los demás amotinados, fue ordenar que, el alcalde y los demás miembros del gobierno municipal, se despojasen de una prenda imprescindible entre los hombres del siglo XVIII que se consideraban a la moda. Es decir, la peluca que, por lo general, colocaban sobre un cráneo cuidadosamente rapado para tal fin. Todos aquellos que leen estas líneas y hayan visto ciertos cuadros de William Hogarth, se harán una idea, más o menos exacta, de cuál era la clase de conflicto que estaba planteando aquel *base-rritarra* que sólo es conocido por este documento con el nombre de Antonio⁵.

Sin embargo, su programa político, por así llamarlo, iba mucho más allá de esos retoques estéticos que, destruyendo el creciente lujo que ostentan las clases medias y altas europeas —y, de rechazo, guipuzcoanas— como símbolo de status, trataba de hacer más efectiva la teoría de lo que en su día Alfonso de Otazu llamó “Igualarismo vasco”⁶.

En efecto, Antonio, inquilino de “Arroacola” en Arrona, quería cambiar las realidades económicas del cada vez más pujante capitalismo guipuzcoano dieciochesco al que él y sus correligionarios no terminaban de encontrar las ventajas que presuntamente se le atribuían. Sobre todo por lo que respectaba a conseguir a precios más baratos bienes de primera necesidad, como lo era —y es aún hoy día— el pan.

5. Consúltese AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 2 recto.

6. Alfonso DE OTAZU Y LLANA: *El “igualarismo” vasco: mito y realidad*. Txertoa. San Sebastián, 1986.

duan saltzen zuten gariari salneurria jartzeko neurriak apurtu zituen, edo hori zioen behintzat⁷.

Agiriak, jakina, abizenik gabeko Antonioz gain, XVIII. mende erdialdeko beste gipuzkoar batzuk ere aipatzen ditu, Arroako Arracola etxeko Antonio bezala, orduko egoera biziki gorrotatzen zutenak eta egoerari aurre egiteko armak hartu zituztenak, biolentzia sinbolikoko ekintzak antolatuz, Antoniori leporatutakoen ildotik.

Langintza horretan gehien nabarmendu zenetako bat Itziarko Ygnacio Lazcano izan zen, «Begibeltz» goitzenekoa.

Aztertzen ari garen agiriak Lazcanori buruz esaten dituenak oso kezka-garriak ziren XVIII. mende erdialdean Gipuzkoako ekonomia eta gizartea hartzen ari zen norabidearekin bat zetozenentzat. Begi bistakoa da Ygnacio Lazcano *Begibeltz* matxinoarentzat ez zela nahikoa iskanbila apur bat sortzea. Aitzitik, dirudienez, protesta harekin, gaur egun «merkatu mekanismo» izendatzen ditugunen gaineko kontrol zorrotza ezarri nahi zuen eta, horretarako, matxinoek alde egin ostean ere hiribilduan geratu zen. Bere helburua elizgizonek matxinoek prestatutako kapitulazioa sinatzea zen, garai hartan klase ertainetan eta goi klaseetan hain modan zeuden legezko agirien imitazio zakarra eginda, hitzez eta matxinoen armapean hitz emandakoa bete zezaten. Hitzez eta idatziz zin egindakoa betetzera behartu zituen Ygnacio Lazcanok, 1766ko Getariako agintari klaseek berriro bera eta gainerako matxinoak hiribilduan ikusi nahi ez bazituzten behintzat, eta hitza bete ezean mendeku hartuko zutela jakinarazi zien⁸.

Dena dela, egun hartan Manuel Chacarteguik egindako delituen –edo balentrien, nondik begiratzen den– zerrenda da agirian jasotako interesgarrienetako bat.

Interesgarria da, batez ere, bertan oso zehatz azaltzen delako islatuta Manuel Agote, aurrerantzean «zaharra» izendatuko duguna. Ikusiko dugunez, Getarian sartu ziren matxinoen gorrotoaren jomuga bihurtu zen Manuel

7. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 2. orriaren aurrealdea. Konpainia horri buruz, ikus Montserrat GARATE OJANGUREN: «La Real Compañía Sardinera de Guetaria: un estudio económico». *Euskal-erriaren Adiskideen Elkartearen aldizkaria*, 38. zk., 1982, 3-29 or. Nekazal ekoizpenen liberalizazioari buruz ikus Xabier ALBERDI LONBIDE: «La comercialización de la producción agrícola guipuzcoana durante la Edad Moderna», en Francisco José ARANDA PÉREZ (Koord.): *El mundo rural en la España Moderna*. Cuenca: Editorial de la Universidad de Castilla-La Mancha, 2004.

8. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 7. orriaren aurrealdea.

Así, las páginas del documento que aquí analizamos nos dicen que él fue uno de los que habían mandado a Juan Bautista de Ezenarro, capitán de un navío de lo que ese documento llama la Compañía de sardina de la villa, que vendiese la carga de trigo que llevaba a bordo y que no se sacase nada de él de Getaria. Antonio no sólo había querido evitar por ese medio que el pan quedase convertido en una mercancía más, sujeta a la codicia de los mercados libres. Asimismo, había destruido, o eso se decía, las medidas con las cuales se tasaban las cantidades de trigo que se vendían en la villa⁷.

Ese documento, por supuesto, alude a otros guipuzcoanos de mediados del siglo XVIII, aparte de a ese Antonio de apellido desconocido, que odiaban visceralmente ese estado de cosas y que se sublevaron en armas para evitarlo, organizando actos de violencia simbólica como estos de los que se acusa a Antonio, inquilino de “Arroacola” en Arrona.

Uno de los que más parece haberse destacado en esa labor es Ygnacio de Lazcano, alias “Beguibelz”, que era de la Tierra de Yziar.

De él decían en el documento que analizamos, cosas verdaderamente preocupantes para todos aquellos de acuerdo con el rumbo que estaban tomando la Economía y la sociedad guipuzcoana de mediados del siglo XVIII. Era evidente que el ojinegro Ygnacio de Lazcano era de los machinos que no se conformaban con armar un simple alboroto. Por el contrario todo indicaba que se trataba de un amotinado de los que, con aquella protesta, querían establecer un celoso y rígido control sobre los que hoy llamamos “mecanismos de mercado” y para ese fin, al parecer, se había quedado en Getaria después de que salieran de la villa los amotinados. Para que los eclesiásticos firmasen la capitulación dispuesta por ellos, obligándose así, en una especie de burda imitación de los documentos legales tan en boga entre las clases medias y altas de la época, a cumplir con lo que, de palabra, y bajo la sombra de las manos armadas de los machinos, se habían comprometido a hacer. Promesas de palabra y escritas que Ygnacio de Lazcano conminó a que fueran cumplidas, a menos que las clases dominantes en la Getaria de 1766 quisieran verlos de vuelta a la villa, a él y a los restantes amotinados, para tomar cumplida venganza de tan turbia maniobra⁸.

Sin embargo, la lista de los delitos –o hazañas, dependiendo de la perspectiva– cometidos por Manuel de Chacartegui en aquella jornada de rebelión, es, quizás, una de las más interesantes de las que recoge este documento.

7. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 2 recto. Sobre esta Compañía véase Montserrat GARATE OJANGUREN: “La Real Compañía Sardinera de Guetaria: un estudio económico”. Boletín de la RSBAP, nº 38, 1982, pp. 3-29. Sobre la liberalización de la producción agrícola véase Xabier ALBERDI LONBIDE: “La comercialización de la producción agrícola guipuzcoana durante la Edad Moderna”, en Francisco José ARANDA PÉREZ (Coord.): *El mundo rural en la España Moderna*. Cuenca: Editorial de la Universidad de Castilla-La Mancha, 2004.

8. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 7 recto.

Agote zaharra, ez zelarik horretarako arrazoirik falta, eta agiria 1766ko matxinoen etsaien irudia ezagutzeko oso lagungarri zaigu⁹.

Lehen begiratuan, ez dirudi Manuel Chacartegui ezer berezirik egin zuenik. Ez behintzat hura agirian azaldu arte gainerako matxinoek egingakoarekin alderatuta.

Hala, orain arte hitzez hitz jarraitu dugun korrejidorearen informazioak dio Chacartegui zumaiarra zela eta, gainerako matxinoekin batera, aleen prezio neurriak apurtu zituela¹⁰.

Ez zen oso jarrera originala matxinoen artean.

Izan ere, Patxi Guardia izeneko kide batek beste hainbeste egin zuen. Hala, agiriaren egileari ez zaio oso aipagarria iruditzen martxan jarri berri zen merkatu librearen aurkako ekintza hori, eta ez ditu zehaztasunak ematen –horrelako agirietan ohikoa denaren kontra–, hein batean matxinada horretan ohikoa izan zen *modus operandi* horri buruz¹¹.

Dena dela, Manuel Chacartegi gainerako matxinoak baino urrats bat harago iritsi zen. Une horretan interesgarri bihurtu zen 1766ko matxinadako egun haietako historia pertsonal txikia –ezdeusa, agian, batzuen ustez–.

Hala da, aztertzen ari garen agiriaren arabera. Manuel Chacartegui Getariako zenbait etxetan sartu zen eta aleen salmentarako erabilitako neurriak emateko eskatu zizkien bertakoei, baina bisita zakar horiekin ez zuen nahikoa izan. Manuel Agoteren etxe inguruan ibili zen; Agote hiribilduko pertsona garrantzitsuenetakoa zen, eta urte hartan, beste batzuetan bezala, kargua zuen udalean. Agiriak dio getariar entzutetsuaren etxea iraindu zuela, miatu egin baitzuen eta Manuel Agote eta herriko beste batzuk hil behar zirela esan baitzuen...¹².

9. Atal honetan aipatuko ditugun beste arrazoi batzuen artean, Agoteren aurkako matxinoen herra eragin zuen faktoreetako bat izan zen Nantesetik ekarritako 800 anega –herriko kofradia batek zituenak– 26 errealetan saltzearen aurka azaldu zela. Ikus José María IÑURRATEGUI RODRÍGUEZ: *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres*. UPV-EHU. Bilbo (1996), 86 or. Egile horrek akats bat egin zuen eta Agote idatzi beharrean Argote jarri zuen.

10. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 3. orriaren aurrealdea.

11. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 4. orriaren aurrealdea.

12. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 3. orriaren aurrealdea.

Especialmente porque en ella aparece reflejado con bastante exactitud un interesante personaje, Manuel de Agote, al que llamaremos “el viejo”, que, como iremos viendo, se convierte, y por muy buenas razones, en el principal objeto del odio de los machinos que entran en Getaria, prestándonos así una inestimable ayuda a la hora de reconstruir el rostro de los enemigos de los amotinados del año 1766⁹.

A primera vista, Manuel de Chacartegui no parece haber hecho nada extraordinario. Al menos con respecto a lo que el resto de los machinos han sido capaces de hacer hasta el momento en el que él aparece reflejado en el documento.

En efecto, la información que se da al Corregidor, y que hemos ido siguiendo hasta ahora línea a línea, dice de él que era vecino de Zumaia y que, unido a los demás machinos, había roto medidas de granos¹⁰.

Una actitud que podríamos calificar de más bien poco original entre estos amotinados.

En efecto, otro de sus compañeros llamado Pachi Guardia, como él vecino de Zumaia, había hecho otro tanto. De hecho, al relator del documento le parece tan poco reseñable ese vandalismo contra los instrumentos del mercado libre recién inaugurado, que ni siquiera se molesta –en contra de lo que suele ser habitual en este tipo de documentos– en dar detalles sobre ese, hasta cierto punto, rutinario *modus operandi* característico de esa rebelión¹¹.

Sin embargo, Manuel de Chacartegui se había atrevido a ir mucho más allá de lo que había ido cualquier otro machino. Y es en ese punto en el que se hace más interesante su pequeña –acaso habrá quien piense que insignificante– historia personal durante aquellos días de motín del año 1766.

Así es, según el documento que estamos analizando en este apartado, Manuel de Chacartegui había entrado en varias casas de Getaria y había ordenado que le dieran las medidas utilizadas para la compraventa de grano pero, además, no se había conformado con esas broncas visitas. También había rondado la morada de uno de los principales vecinos de la villa, Manuel de Agote, que en ese año, como en otros, ejercía un cargo municipal. El documento dice que había insultado la casa de ese eminente getariano, atre-

9. La inquina de los machinos contra Agote está motivada, entre otros factores de los que daremos cuenta en este apartado, por su resistencia a comercializar a 26 reales 800 fanegas traídas desde Nantes, que obran en poder de una de las cofradías locales. Véase José María IÑURRATEGUI RODRÍGUEZ: *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres*. UPV-EHU. Bilbao, 1996, p. 86. Este autor transcribe equivocadamente su apellido como Argote, en lugar de Agote.

10. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 3 recto.

11. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 4 recto.

Hala, agirian jasotako zenbait lekukotasunen arabera, etxea erreko zuela esanez mehatxu egin zuen¹³.

Hori Manuel Agotek 1766ko matxinoen artean piztutako gorrotoaren adierazle txiki bat baino ez da.

Agiriak dioenez, 1766ko egun hartan Getarian sartu bezain laster, matxinoek Manuel Agoteri, Juan Baptista Ezenarriori eta Joseph Migueli abarkak jantzarazi zizkieten eta jendaurrean «baserritarren eran» dantzatzera behartu zituzten¹⁴.

Gaur egun, gure ikuspegitik, arlo folklorikoari edo herrikoari balioa eman dion gure gizarte posterromantikotik, pobreen arropa janzteia –horixe baino ez ziren abarkak, zapatak erosteko ere dirurik ez zuten txiroen oinetakoak– eta «baserritarren eran» dantzatzea jarrera erabat egokiak iruditu ahal zaizkigu.

Baina XVIII. mendean ez zen horrela, Peter Burkek bere garaian esan zuen bezala, herri kultura eliteen kulturatik gero eta bereiziago baitzegoen. Behintzat jendaurreko adierazpideei dagokienez, esaterako, dantza herrikoien arloan. Oso bestelako kontua da, elite horietan berezitasun herriko horiek ikertzeko pizten ari zen interesa –betiere distantzia ezarrita–. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek ospakizun ekitaldi batzuetarako aukeratutako piezek erakusten dute klase ertainetako eta goi klaseetako europarrek herri kultura izendatutakoarekiko zuten lotura eza. Manuel Agote *zaharrak* eta zorigaiztoan kide izan zituenek, gogoz bestera bada ere, 1766an matxinatutako Gipuzkoako herri xehearen janzkerarekin eta dantzeekin izandako lotura baino askoz txikiagoa¹⁵.

XVIII. mendeko Gipuzkoan baserritar janzkera eta haiek bezala dantzatzera behartu izanak zein esanahi zuen azaldu ondoren –hitz bitan, halako tratua jasan duen biktimarekiko izugarritzko gorrotoa–, Manuel

13. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 3. orriaren aurrealdea.

14. Kontsultatu AGG-GAO CO CRI 1766. urtea, 11. kutxa, 2. espedientea, 2. orriaren aurrealdea.

15. Aro Modernoko Europan herri kulturarekiko ikuspegiaren izandako bilakaerari buruz gehiago jakiteko, ikus Peter BURKE: *La cultura popular en la Europa moderna*. (Alianza. Madril, 1991, 376-396 or.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen ekitaldietan musika konposizio jasoen eta herrikoien, nolabait esatearren, arteko loturari buruz, kontsultatu Bergarako Udal Artxibategia RSB 03 C/075-08. Elkartearen 1783ko bigarren lau hileko batzarrean, maiatzaren 8an, Glück eta Haydnen konposizioekin edo San Jorgeko eta Santibañezeko zaldunen konposizioekin batera, agiri horrek pastoral edo zortziko izendatutakoak ere entzun ziren.

viéndose a registrarla y asegurando que no se debía dejar vivos a Manuel de Agote, y a otros como él, en aquella villa...¹².

De hecho, el documento recoge testimonios que aseguran que había amenazado con quemar esa casa¹³.

Eso, en cualquier caso, no es sino un pequeño trazo del odio que, según todos los indicios, Manuel de Agote, el viejo, había logrado concitar en su contra entre los machinos de 1766.

Así, el documento nos indica que los machinos, apenas entran en Getaria en aquel agitado día del año 1766, obligan a Manuel de Agote, a Juan Bautista de Ezenarro y a Joseph Miguel de Beriztain a vestir con abarcas “y à estilo de los caseros” danzar en público¹⁴.

Puede que hoy día, desde nuestra perspectiva, que es la de una sociedad postromántica en la que lo folklórico, o si así lo preferimos, lo popular, ha sido revalorizado, ese vestirse con ropas de pobres de solemnidad –eso, o poco más, es lo que eran las abarcas, el calzado de quien era tan pobre que no podía siquiera comprarse zapatos– y bailar al “estilo de los caseros” pueda parecer un comportamiento perfectamente correcto.

Una conclusión a todas luces errónea para una sociedad como la del siglo XVIII en la que, como ya se encargó de señalar Peter Burke en su día, la cultura popular está cada vez más separada de la cultura de las élites. Al menos por lo que respecta a efusiones de cara al público como podían ser las danzas populares. Cosa bien distinta es el interés paralelo que esas élites empiezan a desarrollar por el estudio y contemplación –siempre a prudente distancia– de esas curiosidades populares. Las piezas que en ocasiones selecciona la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País para sus ceremonias, son una excelente prueba de la distancia a la que un europeo de los rangos medios y superiores de esa época se relacionaba con la llamada cultura popular. Una, desde luego, mucho mayor que la que Manuel de Agote el viejo y sus compañeros de desgracia mantuvieron, muy a su pesar, con respecto a los atuendos y danzas del bajo pueblo guipuzcoano amotinado en el año 1766¹⁵.

12. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 3 recto.

13. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 3 recto.

14. AGG-GAO CO CRI Año 1766, caja 11, expediente 2, folio 2 recto.

15. Respecto a esa evolución de perspectivas con respecto a la cultura popular en la Europa de la Edad Moderna, véase Peter BURKE: *La cultura popular en la Europa moderna*. Alianza. Madrid, 1991, pp. 376-396.

Con respecto a la combinación de piezas musicales cultas y, por así decir, populares, en los actos de la Real Sociedad Bascongada, consúltese Archivo Municipal de Bergara RSB 03 C/075-08. Durante la segunda Junta Cuatrimestral de la Sociedad en el año 1783, celebrada el 8 de mayo, se escuchan tanto piezas de Glück y Haydn o composiciones del caballero de San Jorge y de Santibáñez, como lo que ese documento llama pastoral o “zortzico”.

Chacartegik hainbeste gaitz opa zion Manuel Agote izeneko jaunari buruz zertxobait gehiago jakiteko saioa egin beharko genuke.

Jakin-min hori oso egokia da, kontrakoa irudi arren. Izan ere, Matxinadak Gipuzkoako kostaldean izan zuen garapenari buruzko xehetasun txiki horiek aztertzeak lagunduko gaitu gizartearen asaldura horren helburuak eta 1766an hain korapilatsua zen herrialdean gertatutako astinaldi antikapitalistaren tamaina ulertzen. Azken batean, hori baita lan honen helburu behinena.

Hala, luzamendutan ibili gabe, Manuel Agote *zaharra* zein zen eta sozialki zer ordezkatzan zuen ikusiko dugu. Hasteko, lehen ere esan dugu gaur egun Getariako goi klase gisa definituko genukeenaren kide zela. Gipuzkoako hiribildu bakoitzean bertako arlo publikoa gobernatzen aritu zitekeen herritar bakan horietako bat zen, eta bide batez, beharrezko balitz, probintziako kontuak eta, ondoren, nork jakin, garaiko Europako monarkia garrantzitsuenetako baten kontuak. Hau da, Espainiako monarkiarenak.

